



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maiatzaren 18a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/PES-00044. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Despopulazioaren aurkako borrokara bideratutako azpiegituren eraldaketarako dirulaguntzak ezartzea, irisgarritasunaren arloko puntuazioa handituz” neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-23/PES-00045. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Eskabide inklusiboa abian jartzea” neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-23/PES-00046. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Desgaitasunaren arloko prestakuntza ibilbidea bat prestatzea eta Nafarroako administrazioko langileei, oro har, zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea” neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-23/PES-00047. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Desgaitasuna duten pertsonen erregistro komun bat diseinatu eta sortzea, garraio baremoarekin” neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-23/PES-00048. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren hirugarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 10-23/PES-00049. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren laugarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-23/PES-00050. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren bigarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 10-23/PES-00051. Galdera, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Ebaluazio Planean erabilitako gogobetetasun-inkestak berrikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 10-23/PES-00052. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako bigarren aldaketaren bigarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- 10-23/PES-00054. Galdera, banku-entitateei, batez ere landa eremuan, arreta presentzialerako pizgarriak ematera prematzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-23/PES-00055. Galdera, “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntza, LGTBI+ arloa sustatu eta laguntzeko” kontusaileko diru kopurua aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 10-23/PES-00058. Galdera, Nafarroako desgaitasunaren sektorearean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 10-23/PES-00059. Galdera, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarteko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

F saila:
GALDERAK

10-23/PES-00044. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Despopulazioaren aurkako borrokara bideratutako azpiegituren eraldaketarako dirulaguntzak ezartzea, irisgarritasunaren arloko puntuazioa handituz” neurriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Despopulazioaren aurkako borrokara bideratutako azpiegituren eraldaketarako dirulaguntzak ezartzea, irisgarritasunaren arloko puntuazioa handituz” neurriari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00044), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak aldaketa bakarra xedatzen zuen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, honako neurri hau: Despopulazioaren aurkako borrokara bideratutako

azpiegiturak eraberritzeko dirulaguntzak ezartzea, irisgarritasunaren arloko puntuazioa handituz.

Planaren ebaluazioan, zergatik eman da neurri hori “amaitutzat” kontuan hartuta txostenaren 112-113. orrialdeetan berariaz jasotzen dela irisgarritasun-aurrekontua “datozen urteetan era horretako jarduketak egiteko aurreikusitako guztizkoaren % 11 dela” eta lortu nahi zen helburua, gutxienez, % 15ekoa zela?

Lehenik, eskertu nahi dizut Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2021eko Plan Operatiboan jasotako neurriez agertutako interesa.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko Irisgarritasun Planak neurri hau zekarren:

Despopulazioaren aurkako borrokara bideratutako azpiegiturak eraberritzeko Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdian irisgarritasunaren arloko jarduketak bereziki baloratzea, puntu gehiago emanez.

Deialdi horretan egindako eraberritze lanen % 15, gutxienez, udal eta kontzejuen ekipamenduraikinen irisgarritasuna hobetzeko lanak izatea lortu nahi zen. Deialdia 1.200.000 euroz hornituta zegoela kontuan hartuta, irisgarritasunerako aurrekontuak 180.000 eurokoa izan behar zuen.

Aldaketa-Neurria	Definizio osoa
1. aldaketa	C1. Irisgarritasun unibertsalerako jarduketak sustatzea Nafarroako udal eta kontzejuen ekipamendu-erakinetan.
1. neurria	M1. Despopulazioaren aurkako borrokara bideratutako azpiegiturak eraberritzeko dirulaguntzak ezartzea, irisgarritasunaren arloko puntuazioa handituz.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren ekainaren 29ko 104E/2021 Ebazpenaren bidez deialdi hau onetsi zen: despopulazio arriskua duten udal eta kontzejuei 2021ean dirulaguntzak emateko deialdia, despopulazioaren aurkako borrokarako inbertsioak egin ditzaten.

Ebazpenean inbertsio finantzagarrizat jotzen dira Nafarroako Despopulazioaren aurkako Borrokaren Estrategiaren ildoan proposatzen diren eskaera eta beharrei erantzuten eta haren helbu-

ruak erdiesten laguntzen dutenak, honako apartatu hauean sailka badaitezke:

a) Zuzkidurak eraikitzea, handitzea edo eraberritzea erabilera hauetarako: administrazio-rako, gizarte erabilerarako, kulturarako, kirolerako, aisia eta jolaserako, eta turismorako, udal bakoitzak dituen eskumenen arabera.

b) etxebizitzak eraberritu eta/edo erostea alokairura bideratzeko.

Balorazio irizpideetan 5 puntu arteko balorazioa ematen zaie irisgarritasunerako jarduketei:

INBERTSIOA BALORATZEKO IRIZPIDEAK	100 PUNTU GEHIENEZ
A IRIZPIDEA: INBERTSIOAREN LURRALDE EREMUA	50 PUNTU GEHIENEZ
A.1. INBERTSIOA EGIN DEN UDALERRIKO DESPOPULAZIORAKO ARRISKU-MAILAREN INDIZEA	
1. Muturreko arriskua: 40 puntu	
2. Arrisku bizia: 30 puntu	40 puntu gehienez
3. Arrisku esanguratsua: 20 puntu	
4. Gainbehera bizia: 10 puntu	
5. Gainbehera moderatua: 3 puntu	
A.2. INBERTSIOA EGIN DEN UDAL EDO KONTZEJUKO ZAHARTZE INDIZEA (*)	5 puntu gehienez
A.3. INBERTSIOA EGIN DEN UDAL EDO KONTZEJUKO MASKULINIZAZIO INDIZEA (*)	5 puntu gehienez
B IRIZPIDEA: INBERTSIOAREN BALORAZIO ESPEZIFIKOA	50 PUNTU GEHIENEZ
B.1. INBERTSIOA GAUZATZEKO PREMIA	
1. Esku hartzeko premia presako eta saihetsezina: 20 puntu	20 puntu gehienez
2. Epe labur edo ertainera esku hartzeko premia: 12 puntu	
3. Obrak egitea komeni da: 5 puntu	
B.2. NAFARROAKO DESPOPULAZIOAREN AURKAKO BORROKARAKO ESTRATEGIAREKIKO EGOKITASUNA	
1. Proposamenaren egokitasuna: 16 puntu arte	25 puntu gehienez
2. Espero diren emaitzak: 3 puntu arte	
3. Talde onuradunak: 3 puntu arte	
4. Inbertsioaren bideragarritasuna: 3 puntu arte	
B.3. IRISGARRITASUNERAKO JARDUKETAK SARTZEA	
1. Irisgarritasunerako aurrekontua \geq guztizkoaren % 30: 5 puntu	5 puntu gehienez
2. Irisgarritasunerako aurrekontua \geq guztizkoaren % 10 eta < guztizkoaren % 30: 2 puntu	

Deialdia ebatzi ondoren, irisgarritasunaren arloko jarduketetarako benetan gauzatutako aurrekontua 127.164,09 eurokoa zela kalkulatu zen.

Neurria 2021eko ekitaldirako zegoen proposatuta, deialdia urte horretan egin baitzen. Beraz, amaitutzat ematen da. Azken emaitza toki entitateen eskaeren eta beharren ondoriozkoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00045. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Eskabide inklusiboa abian jartzea” neurriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Eskabide inklusiboa abian jartzea” neurriari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00045), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak bigarren aldaketa bat xedatzen zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, honako neurri hau: Eskabide inklusiboa abian jartzea.

Planaren ebaluazioan, zergatik eman da neurri hori “amaitutzat” kontuan hartuta txostenaren 106-107. orrialdeetan berariaz jasotzen dela “2021eko abenduaren 31n eskabide inklusiboa diseinatuta zegoela, baina Erregistro Orokorra hura noiz ezartzeko zain” eta helburua hura abian jartzea zela?

Dakizun bezala, Nafarroako Gobernuak, historian lehen aldiz, irisgarritasun unibertsalaren araudian ezarritakoa bete du irisgarritasunerako jarduketaren planak onesteari dagokionez.

Izan ere, egungo Nafarroako Gobernuak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2021eko Plan Operatiboan onetsi zuen, jarraian Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2022ko Plan Operatiboan etorri zen, eta orain Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2023ko Plan Operatiboan prestatzen ari gara.

“Eskabide inklusiboa abian jartzea” izeneko neurriari dagokionez, 2021eko abenduaren 31n eskabidea diseinatuta zegoen eta argitaratu zain.

Eskabide orokor inklusiboa prestatzeko lana Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarekin batera egin da, egungo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Elizondoko erregistro bulegoan lehenago egindako lan bat baliatuz.

Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren ebaluazioan neurriari egin zaion balorazioarekin ados egon edo ez, gurekin bat etorriko zara onartzean irisgarritasun kognitiboa beharrezkoa dela inor atzean ez uzteko eta pertsona guztiek baldintza berdinetan eskuratu ahal ditzaten zerbitzu publikoak. Horrexegatik izan da garrantzitsua eskabide orokorra irakurketa errazterako moldatzea, dokumenturik ohikoena baita herritarren eta Administrazioaren arteko harremanetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00046. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Desgaitasunaren arloko prestakuntza ibilbidea bat prestatzea eta Nafarroako administrazioko langileei, oro har, zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea” neurriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Desgaitasunaren arloko prestakuntza ibilbidea bat prestatzea eta Nafarroako administrazioko langileei, oro har, zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea” neurriari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00046), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak neurri bakarra xedatzen zuen Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarentzat: Desgaitasunaren arloko prestakuntza-ibilbide bat prestatzea eta Nafarroako administrazioko langileei, oro har, zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea.

Planaren ebaluazioan, zergatik eman da neurri hori “amaitutzat” kontuan hartuta lortu nahi ziren helburuen artean zeudela prestakuntza orokorra emateko eta herritarrei arreta emateko unitateentzako ikastaro bana egitea, eta aintzat hartuta txostenak berak aipatzen duela ikastaro bakarria egin dela?

Zure galderari erantzunez, “Desgaitasunaren arloko prestakuntza-ibilbide bat prestatzea eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko langileei zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea”

izeneko neurria dela-eta, 2021eko abenduaren 31n “Modu irisgarria” ikastaroa entregatuta zegoen eta lehen ikastaro pilotua eginda (azaroaren 9tik 30era bitartean). Beste pertsona batzuen artean, talde guztietako parlamentari bana gonbidatu zen ikastaro horretara.

“Modu irisgarria” izeneko ikastaro hori erabil daiteke desgaitasuna duten pertsonetara tratatu eta interakziorako prestakuntza emateko edonori, herritarrentzako arreta unitateetako pertsonak barne. Dena den, berriazko ikastaroak egin ziren 2021ean herritarrentzako arreta unitateetako langileentzat.

Hori horrela, uste dugu zuzena dela emandako informazioa, alegia, neurria 2021eko abenduaren 31n amaituta zegoela.

Prestakuntza masiboaren formatu hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko langileei eskaintzen jarraituko da eta herritarren eskura jarriko da, nahi dutenek prestakuntza har dezaten, irekia eta doakoa, irisgarritasun unibertsala sustatzeko neurri gisa.

Nolanahi ere, gurekin bat etorriko zara beharrezkoa, egokia eta zuzena dela neurri berritzaile hau –berritzailea kalitateagatik eta jada trebatu diren pertsonen kopuru handiagatik, 1.500etik gora–, desgaitasuna duten pertsonen informaziorako, ondasunetarako eta zerbitzuetarako irispidea izan dezaten baldintza berdinetan, segurtasunez, erosotasunez eta autonomiaz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00047. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Desgaitasuna duten pertsonen erregistro komun bat diseinatu eta sortzea, garraio baremoarekin” neurriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan jasotako “Desgaitasuna duten pertsonen erregistro komun bat diseinatu eta sortzea, garraio baremoarekin” neurriari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00047), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak aldaketa bakarra xedatzen zuen Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, honako neurri hau zen lehenengoa: Desgaitasuna duten pertsonen erregistro komun bat diseinatu eta sortzea, garraio baremoarekin.

Planaren ebaluazioan, zergatik adierazi da neurri hori “% 50ean betea” dagoela, kontuan hartuta txostenaren 60. orrialdean berariaz jasota datorrela ez dagoela horri buruzko adierazlerik?

Egia da Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren jarraipen txostenean adierazleak ez duela ekintza betetzat ematen, baina ekitaldi horretan lanaren oinarriak ezarri ziren, eta azken emaitza izan zen Eskubide Sozialetako kontseilariaren martxoaren 7ko 52/2022 Foru Agindua argitaratzea, desgaitasuna duten pertsonendako aparkatzeko txartela arautzen duena Foru Komunitatean –2022ko martxoaren 24an argitaratua–, bai eta premien eta egin beharreko jarduketan azterketa bat koordinatzea ere, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin (NUKF), desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeen Nafarroako batzordearekin (CERMIN) eta beste kolektibo batzuekin batera egin beharrekoa.

Ondorioztatzen da, iragarri zen bezala, Eskubide Sozialetako Departamentuak iragan sei hilabetean amaitu zuela desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartel guztietarako baimenen erregistro bakarraren sorrera. Erregistro horrek bikoiztasunak eta txartelen erabilera bidegabeak eragotziko ditu. Gainera, sistema horrek izapideak egiten lagunduko die ukitutako pertsonen, erraztu egiten du toki entitateen kudeaketa, desgaitasuna duten pertsonen txartela lortzeko eskubidea bermatuko die eta iruzurrezko erabilera galaraziko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetz.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00048. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren hirugarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren hirugarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00048), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak lehen aldaketa bat xedatzen zuen Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, hauxe zen hirugarren neurria: Egun dauden webguneak egokitzea irisgarritasun-araudia betetze aldera.

Planaren ebaluazioan, zergatik eman da neurri hori "amaitutzat" kontuan hartuta txostenaren 42. orrialdean berariaz jasotzen dela "webguneen azterketa 2021ean abiatu zela, baina abenduaren 31n oraindik ez zela amaitu" eta neurriaren aurrekontu-betetzea aurreikusitakoaren % 36 baino ez dela eta neurriaren adierazle guztiak hutsik agertzen direla?

Zure eskaerari dagokionez, "Egun dauden webguneak egokitzea irisgarritasun-araudia betetze aldera" izeneko neurria dela-eta, 2021eko abenduaren 31n jarduketa hauek eginak ziren neurri horrekin lotuta:

Planaren ondorioz koordinazio-dinamika sortu zen Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiko Irisgarritasuneko Unitate Arduradunaren eta Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiko unitate tek-

nikoaren artean, hamabostean behingo lan eta koordinazio bileretan gauzatu dena.

Lantaldearen helburua da lerrokatuta egotea Web Irisgarritasunaren Behatokiarekin. Erakunde horrek Nafarroako Gobernuaz aztertzen eta ebaluatzen du, bere kabuz hautatzen dituen zenbait hazi-orriren gainean.

Hasiera batean apustu egin zen Nafarroako Gobernuak dituen web orri guztietatik hain zuzen ere "hazi" orriak lehenestea, hau da, Web Irisgarritasunaren Behatokiak ebaluatzen dituenak. Hazi-orri horiek dira enplegukoa, hezkuntzakoa, Foru Ogasunarena, navarra.es, osasunekoa, egoitza elektronikoa, Gobernu Irekia, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, justiziakoa eta turismokoa.

Hazi-orri horiekin loturik, Telekomunikazioetako eta Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiak irisgarritasun baldintzen barne-ebaluazio erraztua egin zuen hazi-orri horietako lauren egoera ezagutzeko (turismoa, justizia, Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Gobernu Irekia).

Irisgarritasuneko Unitate Arduradunak irisgarritasun baldintzei buruzko kanpoko ebaluazio sakon bat kontratatu zuen gainerako sei hazi-orrietarako (enplegua, hezkuntza, Foru Ogasuna, navarra.es, osasuna eta egoitza elektronikoa).

Aurretiazko ebaluazio horiek jardunbiderik onentzat jo ziren orri bakoitzaren ez-betetze zehatzak ebaluatu aurretik (katalogazio fasea) eta ez-betetzeak zuzendu behar dituen jarduketa plana egin aurretik.

Lan horren ildotik, berriz definitu ziren sei webguneren irisgarritasun baldintzak.

2021eko beste jarduketa garrantzitsu bat izan zen neurrien inplementazioa eta katalogazioa egitea zenbait atariren migrazioaren bitartez. Zehazki, turismo.navarra.es ataria www.visitnavarra.es-era migratu zen, barnean hartuta irisgarritasun kalifikazioaren hobekuntza nabarmena eta irisgarritasunaren deklarazioa.

Halaber navarra.es domeinuaren barnean salud.navarra.es eta hacienda.navarra.es webguneak migratu ziren.

2021ean navarra.es atari berrira migratu ziren navarra.es-eko beste gai batzuk, esaterako empleo.navarra.es.

Gainera, Gobernu Irekiaren eta aurretiazko hizorduen plataformak eguneratzen hasi ziren.

Plataformen eguneratze eta migrazio horiek guztiak aurrerapausoak izan ziren oinarritzko irisgarritasun irizpideak betetze aldera.

Proiektu horiek urtebetetik gorako ahalegina eskatzen zuten, beren konplexutasunagatik. Migrazioa urratsez urrats egiten ari da; horregatik, migrazio teknologikoa eta edukiena aurreratzea lehenetsi zen.

Mundu gero eta digitalizatuago honetan beharrezkoak, presakoak eta nahitaezkoak dira Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2021eko Plan Operatiboan jasotako neurriak, informaziorako eta zerbitzu digitaletarako irispidean hesiak apurtzeko balioko baitute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00049. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren laugarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren laugarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00049), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak lehen aldaketa bat xedatzen zuen Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, hauxe zen laugarren neurria: Nafarroako Foru Administrazioako webgune eta APPetan irisgarritasunaren arloari buruz egindako kontsulta, kexa eta erreklama-

zioak jakinarazteko eta erantzuteko sistema bat ezartzea.

Planaren ebaluazioan, zergatik eman da neurri hori "amaitutzat" kontuan hartuta txostenaren 44. orrialdean berariaz aipatzen dela "2021ean kontsultak jakinarazteko eta erantzuteko sistema prestatu bada ere, oraindik ez da argitaratu" eta lortu nahi zen helburua zela sistema elektronikoko hori ezarrita edukitzea?

"Nafarroako Foru Administrazioako webgune eta APPetan irisgarritasunaren arloari buruz egindako kontsulta, kexa eta erreklamazioak jakinarazteko eta erantzuteko sistema bat ezartzea" delako neurriari dagokionez, 2021eko abenduaren 31n sistema prestatuta zegoen, zerbitzuak diseinatuta eta preproduzioan probak eginda zeuden, eta argitaratzea baino ez zen falta.

Sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzko jakinarazpenak, kexak eta erreklamazioak pertsonentzat eskubideak dira eta Administrazioarentzat betebeharrak. Administrazioak eskubide horiek eraginkor bihurtzeko mekanismoa ezarri behar du. Eskubide/betebehar horietako batzuk gutxienez ere 2018. urtetik dira galdagarriak.

Eskubide horiek baliatu ahal izatea jada bermatuta dago Nafarroako Gobernuaren irisgarritasun unibertsal digitalari dagokionez. Esteka honen bitartez baliatzen ahal dira:

<https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/solicitud-de-informacion-quejas-y-reclamaciones-sobre-accesibilidad-de-sitios-web-y-aplicaciones-moviles>.

Aipatu planean jasotako neurri hori ezarrita, lehen aldiz bermatu dira pertsonen aitortutako eskubide batzuk, bereziki desgaitasuna duten pertsonen aitortutakoak, Nafarroako sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasun unibertsala dela-eta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00050. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren bigarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako lehen aldaketaren bigarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00050), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak lehen aldaketa bat xedatzen zuen Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, hauxe zen bigarren neurria: Desgaitasunaren arloko prestakuntza-ibilbide bat prestatzea eta webguneen nahiz app-en kudeatzaileei eta diseinatzaileei zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea.

Planaren ebaluazioan, zergatik eman da neurri hori “amaitutzat” kontuan hartuta lortu nahi ziren

helburuen artean zeudela langileei prestakuntza ematea eta lehen ikastaroak bultzatzea eta txostenak berak aipatzen duela ez dela horren inguruko ezertxo ere egin?

“Desgaitasunaren arloko prestakuntza-ibilbide bat prestatzea eta webguneen nahiz app-en kudeatzaileei eta diseinatzaileei zuzendutako lehen ikastaroak bultzatzea” delako neurriari dagokionez, 2021eko abenduaren 31n “Modu irisgarri digitala” ikastaroa entregatuta zegoen, nahiz eta, egia esan, lehen ikastaroak 2022an hasi ziren.

Orain arte 487 pertsonari eman zaie prestakuntza ikastaro horren bidez.

Prestakuntza masiboko formatu hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileei eskaintzen jarraituko da eta herritarren eskura ere jarriko da, nahi dutenek prestakuntza har dezaten, irekia eta doakoa, irisgarritasun unibertsala sustatzeko neurri gisa. Beraz, neurri berritzailea da, ez bakarrik kalitateagatik, baita dagoeneko trebatu diren pertsonen kopuru handiagatik ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00051. Galdera, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Ebaluazio Planean erabilitako gogobetetasun-inkestak berrikusteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Ebaluazio Planean erabilitako gogobetetasun-inkestak berrikusteari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00051), non hona-

ko informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

– Nola berrikusi eta egokitu dira NL-NEZen Ebaluazio Planean erabilitako gogobetetasun-inkestak horiek irisgarriak izan daitezten?

Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Ebaluazio Planean erabilitako gogobetetasun-inkestak berrikusteari lotutako neurriari dagokionez, honela berrikusi zen gogobetetasun-inkestak egiteko prozedura:

Enplegu eta orientazio neurriei buruzko 20 galdegi-eredu berrikusi ziren, bai enpresa edo entitate onuradunenak bai zerbitzuen erabiltzaileenak.

Enplegu eta orientazio neurriei buruzko 14 galdegi berri diseinatu ziren.

Jarraipen txostenean taula hau dago:

Indicadores PO 2021	Valor del indicador
Grado de satisfacción de la población usuaria con el nuevo modelo de encuesta.	-

Fuente: Elaboración propia.

Horren arrazoia da ez dela gauzatzearen zuzeneko adierazle bat, baizik eta, egindako esku-hartzearen ondoriozko emaitzaren adierazlea izanda, jarduketa zehatz bat egin behar dela hura egokiro neurtzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00052. Galdera, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako bigarren aldaketaren bigarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Irisgarritasun Plan Operatiboan Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusirako ezarritako bigarren aldaketaren bigarren neurriaren ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 10eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00052), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

– Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboak bigarren aldaketa bat xedatzen zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarentzat; hain zuzen, hauxe zen bigarren neurria: Enplegu agentzietan pertsona gorrei arreta emateko protokolo bat idaztea eta ezartzea.

– Planaren ebaluazioan, zergatik adierazi da neurri hori “% 50ean betea” dagoela, kontuan har-

tuta txostenaren 56. orrialdean berariaz jasota datorrela “protokoloa ez dela oraindik ezarri”?

Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboaren jarraipen txostenari dagokionez –zeina Gobernu Irekian eskura dezakezun–, plan eta programen atalean, “5.2. Enplegu agentzietan pertsona gorrei arreta emateko protokolo bat idaztea eta ezartzea” neurria dela-eta, ez dakigu zer idazketari egozten diozun halako betetze-maila. Barneko lan-protokolo bat da.

Neurri hori iaz abiatu eta gauzatu zen. Enplegu agentziek ematen dituzten zerbitzuetan entzumen desgaitasuna duten pertsonentzako arretaren hobekuntza bermatzea lehenesten du.

Departamentu bakoitzaren jarduketak eta haiei esleitutako plangintza operatiboa lagungarriak dira identifikatutako neurriak betetzeko, albora utzi gabe jarduleek beren ohiko eginkizunetan gartzten dituzten beste ekintza batzuk.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteegüía

10-23/PES-00054. Galdera, banku-entitateei, batez ere landa eremuan, arreta presentzialerako pizgarriak ematera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, banku-entitateei, batez ere landa eremuan, arreta presentzialerako pizgarriak ematera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 17ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du Parlamentuak 2022ko irailaren 8an onetsitako mozioari buruz (10-23/PES-054). Hona Nafarroako Gobernuak lehendakariak ematen duen informazioa:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, arreta presentzialerako, batez ere landa eremuan, pizgarriak eman diezazkien gure erkidegoan lan egiten duten banku-entitateei, finantza-zerbitzuen kontratazio publikoan klausula sozialak erabiliz.

– Nafarroako Gobernuak zer egin du harrezkeror eskaera hori betetzeko?

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 7.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, finantza-zerbitzuen kontratuak, oro har, kontratu publikoei buruzko arauditik kanpo daude.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak 2022ko azaroan abian jarri zuen Abentura Digitala, teknologiak erabiltzen hasteko prestakuntza programa bat, erabat doakoa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko NextGenerationEU europar funtsen bidez finantzatua.

Abentura Digitala programaren hartzailleak Nafarroako herritar guztiak dira: erdi edo goi mailako ikasleak, adineko pertsonak edo erretirodunak, bazterkeria digitalaren arriskua duten per-

tsionak, langabeak eta sektore guztietako landuak. Ikastaroak pertsona bakoitzaren neurrira diseinatuta daude eta prestakuntza-ibilbideak eskaintzen dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, banku-entitateekiko lankidetzak formulak garatu ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, herritarrengandik gertuago dauden finantza-zerbitzuak ematea errazteko.

– Nafarroako Gobernuak zer egin du harrezkeror eskaera hori betetzeko?

Banku-entitateak eta ematen dituzten zerbitzuak Estatuko oinarriko araudian daude araututa, eskumen-titulu hauen babesean: Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluko 1. apartatuko 6., 11. eta 13. zenbakiak, Estatuari eskumen eskusiboak esleitzen diotenak merkataritza arloko legeriaren gainean, kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeke oinarrien gainean eta jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gainean. Nafarroako Foru Komunitatean ez dago arlo horretako araudi berekirik.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak, bere eginkizunen barnean, herritar guztiei gaikuntza digitala eskaintzeko kanpaina garrantzitsu bat egiten ari da: <https://capacitaciondigital.navarra.es/eu/>.

Nafarroako Gobernuak 2021eko irailean abiarazi zuen Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako Plana, helburutzat duena Nafarroa berdintasun digital jasangarria eskaintzen duen lurraldea izateko pertsonen garapenerako eta haien bizi kalitatearen hobekuntzarako.

Foru Komunitatean arrakala digitala murriztuko duen tresna izateko diseinatu da plan hori, eta horretarako bi bide urratuko dira. Batetik, herritar guztien inklusio digitala sustatzea eta gizarte digital berrirantzko trantsizioan inor atzean ez uztea; eta bestetik, herritarrek gaitasun digitalak bereganatzeko sustatzea, lurraldearen eraldatze digitala bultzatu ahal izateko.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

10-23/PES-00055. Galdera, “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntza, LGTBI+ arloa sustatu eta laguntzeko” kontusaileko diru kopurua aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntza, LGTBI+ arloa sustatu eta laguntzeko” kontusaileko diru kopurua aldatzeari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 17ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak idatzizko galdera egin du (PES-00055); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 29ko 474E/2022 Ebazpenean – horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzen deialdi bat onesten da– honako hau ebazten da:

1. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzen deialdi bat onestea Nafarroako toki entitateentzat, LGTBI+ arloko sustapen eta babes proiektuak egiteko 2023an.

Deialdi honen konpromisoei aurre egiteko gastua erreserbatzen eta baimentzen da, 10.010 eurokoa, 2023ko aurrekontuetan honako partida honen baliokide gisa gaitzen den partidaren kargura: 080001 08300 4609 232200 partida, “Nafarroako toki entitateei LGTBI+ sustapenerako eta babeserako dirulaguntza” izenekoa.

2023rako aurrekontuetan onetsitako partida, berriz, 30.010 eurokoa da. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

- Deialdia zergatik egin da 20.000 euro guxtiagorekin? Akatsa izan baldin bada, zer eginen da akatsa zuzentzeko?

080001 08300 4609 232200 partida, “Nafarroako toki entitateei LGTBI+ sustapenerako eta babeserako dirulaguntza” izenekoa, galderan aipatzen den dirulaguntzen deialdia finantzatzen

duena, guztira 30.010 euroz hornituta dago Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legean.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 29ko 474E/2022 Ebazpenaren bidez deialdi hori onetsi zen eta 10.010 euroko gastua baimendu zen.

Administrazio egintza hori babesten duen administrazio espedientea tramitazio aurreratua- ren bidez egin zen. Prozedura mota horrek Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren urriaren 13ko 109/2022 Foru Aginduan ezarritakoa bete behar du. Foru agindu horrek 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek itxi eta likidatzeko arauak onetsi zituen, eta haren arabera abenduaren 1a zen azken eguna espedientea Aurrekontuen eta Programazio Ekonomikoaren Zerbitzuari bidaltzeko, ontzat eman zezan.

Adierazitako data horiek eragin zuten, deialdia onestean, bera finantzatzen duen partidako egungo zenbateko baliagarria jarri ez izana.

Dena den, ebazpen zatiaren laugarren apartatuan azaltzen denez, 20.000 euro gehiago bideratzen ahalko dira gehienez deialdi horretara, kontuan hartuta zenbat eskaera aurkezten diren, eta horretarako ez dago beste deialdi bat egin beharrik.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta guztira zenbat diru eskatu den aztertu ondoren, partidaren eskuragarri dagoen gehieneko zenbatekora arteko gastu gehigarria baimentzeko espedientea iza- pidetuko da.

Nafarroako Gobernuak, bere konpromisoaren agergarri, askatasunak eta eskubideak katalizatz- en eta bultzatzen dituzten politika publikoak indartzen ditu, dibertsitatearen errespetua bultzatzen eta sustatzen dutenak, kasu honetan bezala, toki entitateekin batera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remí- rez Apesteguía

10-23/PES-00058. Galdera, Nafarroako desgaitasunaren sektorearean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako desgaitasunaren sektorearean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 24ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroako desgaitasunaren sektorean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruz (10-23/PES-00058). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Oraindik ez da sortu tresna hori. Eskubide Sozialetako Departamentuak Historia Sozial Bakarra sortzea lehenetsi du, gero beste kudeaketa-tresna batzuk ezarri ahal izateko bertan integratuta.

Gaur egun, badago inpaktu- eta prozesu-adierazle taula, bai Programen eta Dirulaguntzen Kudeaketaren Atalaren ardurapeko hitzarmen izendunetan, bai Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atalak kudeatzen dituen kontratu eta itunetan. Oraindik ez da horrelako taularik prestatu norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdietarako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-23/PES-00059. Galdera, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarterko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarterko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilerei buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 24ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarterko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilerei buruz (10-23/PES-00059). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Zer datatan eta zer gai-zerrendarekin bildu da Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko eratu zen Departamentuarterko Batzordea?

Departamentuarterko Batzordea egun hauetan bildu da:

2020ko otsailaren 25ean	2022ko otsailaren 10ean
2020ko azaroaren 20an	2022ko azaroaren 2an
2021eko ekainaren 9an	Zer datatan eta zer gai-zerrendarekin bildu da Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko eratu zen Batzorde Betearazlea?
2021eko abenduaren 13an	Bilera horien guztien gai-zerrendei dagokienez, 10-23/PEI-00115 informazio eskaerari erantzunez igorri zen dokumentazioaren parte dira eta hortxe daude jasota.
Hurrengo bilera 2023ko apirilaren 17an izanen da	Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.
Batzorde Betearazlea egun hauetan bildu da:	Iruñean, 2023ko martxoaren 24an
2020ko otsailaren 14an	Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca
2020ko maiatzaren 28an	
2020ko irailaren 11n	
2020ko urriaren 16an	
2021eko apirilaren 30ean	
2021eko azaroaren 30ean	